

## «Pena da, baina zer nahi duzu...»

**BAIONAKO ZUP AUZOA.** Autoak erreak izan arren, bertako gazteentzat ez da hori arazo larriena, baizik eta langabezia eta errepresioa

NORA ARBELBI DE - BAI ONA

Autoak kiskali dituztela? Istiluak daudela? Hori ez da gure arazoa, hemen ez gaude Parisen, hemen Euskadin gaude!», dio irriz Mohamed Ben Karifik. Aitzineko egunetan Baionan iraganaz zer deritzon galdetu diogu, eta zuzen zer gertatu den ere ez dakiela ihardetsi du Ben Karifik. Tipitatik bizi da Baionaren bazterrean kokatu auzo honetan, alokairu apaleko etxebizitzek osatu Zup deitu auzunean.

Ondoan Franck Mordin eta Moussa Moukar ditu. Horiek ere jakin dute zenbait auto erreak izan direla, baina ez diote bestelako garrantzirik eman gertakariari: «Ez zaie ekintza hauei behar baino inportantzia gehiagorik eman behar. Zergatik gertatu den hemen, Baionan? Jendeak telebista ikusten duelako», argitu du Moukarrek, «Baiona ere berri sailetan agertzeko. Baina ez dira hemengoak izan, hori segur», hots, auzo horretakoak. Alabaina, Zup auzoa arazoak dituen auzo gisa ezagutua da. Zup auzoan, alta, atxilotuak izan dira, baina haiek, hasteko, ez dutela horren berri diote. «Hau, oro har, auzo lasaia da», gaineratu du Ben Karifik. Izatekoz, gaztetxoak izango ziren su emaileak. 12 eta 16 urte artekoak. «Ez dutenak deus galtzeko». Dena dela, «ez da oldartze antolatatu bat, mukizuak dira hori egin dutenak», zehazten du Moukarrek. Mordinek zalantzak ditu: «FN alderdi politikoaren alde bozkatzeko dutenak izan daitezke, bazterrak nahasteko». Dena dela, auzo honetan arazoak badira, hori ez dute ukatzen. Alderantziz, horretaz badute zer erran.

### **Kamera eta poliziak denean**

«Hasteko, ez gara aske bizi. Ez dugu askatasun izpirik. So egiozu eraikuntza honi, adibidez. Han goian kamera bat daukazu. Hemen sartzean, beste bat. Barnean ere beste bat, eta azkena igogailuan. Sarrera honetan sobera luzaz hitz egiten egoten bagara, segituan Polizia etorriko zaigu zer egiten ari garen galdetzeraz», azaldu du Ben Karifik. Guztiek aho batez polizia gehiegi ari dela haien gibeletik salatzen dute: «Anitzetan egunean hiru-lau aldiz kontrolatzen dituzte gure paperak, eta pertsona berberak, gainera. Alta, ezagutzen gaituzte, badakite nor garen. Badakite gure paperak behar den bezalakoak direla. Baina, hara. Haientzat arabiarrek gara, eta hori ezin dute eraman», gaitzetsi du Ben Karifik. Eguneroko bizia jasangaitza bilakatu zaie. «Izugarriko presioa jasanarazten digute Sarkozyk boterea hartu duenetik. Bere tolerantziarik gabeko lege horrekin eta... Bada, orain hor dauzka emaitzak. Ez zuen probokatu behar». Mordinek dio Polizia xaxatzen ari dela: «Aspalditik zain dago Polizia noiz hasiko garen berotzen. Hori bakarrik dute xerkatzen».

Hiru gazteak mintzo direla, halako batean beste gazte batzuk ere mintzatzera hurbildu dira: «Zer zara? Kazetaria? Euskal kazeta batentzat? Bada idatzi hemen arazo larriena langabezia dela. Galdegin iezaezu euskal nagusiei zergatik ez gaituzten enplegatzen. Zergatik ez dieten erantzuten bidaltzen dizkiegun curriculumei. Arabiar soinuak duten izenak ez dituzte gustuko, ala?», dio haserre izenik eman nahi ez duen gazte batek. «Bada, bai, haserretzekoa, nahiz eta ez den autoak erretzea erantzuna. Oroz gainetik auzo hau familia handi bat da, ez gara hasiko gure lagunak autoak erretzen», gehitu du Mordinek. Mutil taldea utzi eta, auzoan gaindi ibilki, urrunxeago Samira dago, etxetik atera berria, erdi lasterka. Honek ere izenik ez du eman nahi: «Nire anaiak haserretuko zaizkit». Hogei urte ditu Samirak. Laster eskapatzen da funtsean. «Ezin naiz luzatu, itsusi da neska batentzat leku batean geldirik mintzatzeko egotea. Jendeek probokatzeko dudala erranen dute». Zer probokatzeko? galdera pausatu eta irri batekin erantzuten du Samirak. Halere, gertakariez iritzia emateko denbora hartu du. «Pena da hori hemen gertatzea, baina zer nahi duzu...», adierazi du. Langabezia zinezko arazoa dela nabaritu du. «Berrikitan bost gutun bidali ditut, baina nehork ez dit ez eta erantzun». «Gazteentzat ez dago deus hemen. Lehen bilgune bat bagenuen, elkartzeko gune goxo bat zen. Baina egunetik biharamunera zerratu ziguten. Geroztik, ez dago deus». Iritzi bera dauka Idrissa Diakhitek: «So egizu zure inguruan, bakarrik zementua dago. Zementua metatua eta beste deusik ez. Bai, arazo bat bada, bai. Ez da lanik, ez da deus egiteko. Enoatzen gara».

Iturria: *Berria*, 2005-11-10

XABIER ETXANIZ ROJO

## Feng Fu Han

Txinarako bidaia zoragarri hau bukatzeaz dago, hegazkinetik ari natzaizue eta bihotzean sentimendu nahasketa handia daramadala banoa Euskal Herrirantz. Alde batetik, gogoaz daukat etxera iristeko. Eguneroko bizitzak ere alde onak ditu eta nekatuta nago nirea ez den ohe batean lo egiteaz. Beste aldetik, pena handia daukat, atzean uzten ari garen herria benetan baita ederra. Hemezortzi egun izan dira eta betiko geratuko dira nire oroimenaren kutxan.

Hegazkin honetan adoptatutako zortzi bat neskato datoz euren familia berriekin. Nire ondoko eserlekuan Feng Fu Han txikia dago, leihatilatik begira. Fu hitzak zorzea esan nahi du. Han hitzak, berriz, barneko edertasuna duena. «Eta Feng?», galdetu diot bere amari. «Fengdu hiriko umezurtz-etxeko haur guztiek Feng abizena daramate». Fengdu hiria Yangtse ibaiaren ertzean dago eta 2009an Hiru Arroilen presa ikaragarria bukatutakoan Yangtseren uretan murgilduta geratuko da. Ia 60.000 lagunek utziko dute Fengdu eta, presa bukatzen dutenerako, guztira bi miloi txinatar joango dira euren etxeetatik. Feng Fu Han-ek leihatilatik begira jarraitzen du irribarretsu. Begirada, baina, tristeza dauka, eta hain txikia ez balitz, berak ere bihotza erdibiturik daukala pentsatuko nuke, badakiela hegazkin honek etorkizun ezberdin baterantz daramala eta, era berean, badakiela laster bere sorteterrira bere iragana Yangtse ibaian desagertuko dela. Baina hain da txikia...

Iturria: *Berria*, 2005-11-10

ERREPIDEAK

### **Neguak istripuak ugaritu ditu**

Elurra 400 metrotara jaitsi eta euria gogotik egin zuen atzo. Horren ondorioz, istripu asko izan ziren errepideetan. Armiñonen (Araba), Zornotzan eta Arrigorriagan (Bizkaia), Iruran eta Eibarren (Gipuzkoa) izan ziren istripu larrienak. Zornotzan eta Arrigorriagan bina lagun zauritu ziren eta Eibarren, berriz, lau. Iruran kamioilari bat erietxera eraman behar izan zuten. A-8 autobidea bost orduz itxita egon zen, Muskiz parean.

Iturria: *Berria*, 2005-11-26

### **Aukerak, hamaika**

Gastronomia paregabea, eraikin ikusgarriak, hondartza ederrak, ohitura bereziak, mendiko lasaitasuna... denetik topa daiteke Herrialde Katalanetan.

Iturria: *Mantangorri*, 2005-11-26

## Gurpilak gurpilen gainean

'LAGUN TAXI' EKIMENA. Mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat egokitutako taxi berezi bi prestatzeko laguntza eman du Bilboko Udalak, eta jada bederatzi taxi berezi daude Bilbon

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - BILBO

Ezaugarri horiek dituen zerbitzua jasotzeko premia geneukan. Kontuan izan behar da mugitzeko arazoak ditugun pertsonok dependentzia handiagoa daukagula, eta eguneko 24 orduetan laguntza behar izaten dugula Bilbon alde batetik bestera mugitzeko». Gustura zen atzo Cristino Burgoa ONCE Fundazioko Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari presidentea, mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat moldatutako taxi biren aurkezpen ekitaldian.

Citroen markako Co modeloko taxi bi dira atzo jendaurrean aurkeztu zituztenak. Kanpotik begiratuta, Bilboko beste edozein taxiren itxura daukate. Baina, behin autoa irekita, ohiko taxiekiko aldeak agerian gelditzen dira: gurpil aulkia autora sartzea errazteko arrapalak ditu, esate baterako, atzeko eta aldameneko ateetan, eta gutxienez gurpil aulkian doan pertsona bat eramateko nahikoa leku daukate barruan. Jakina, gurpil aulkia eta bertan doan pertsona babesteko, segurtasun uhalak eta buru euskarriak ditu. Era berean, ibilgailuak gurpil aulkari eusteko gailu bat du, eta horrek trakzio, tortsio eta flexio ahaleginei aurre egiten die. «Arrapalak eta bestelako tresna guztiak izango ditu, baina taxi hauek beste edozein pertsonak erabiltzeko modukoak dira», azpimarratu zuen atzo Iñaki Azkuna Bilboko alkatea. Atzo aurkeztutako taxi bietara igotzea oso erraza izango da mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat. Atzo proba egin zuten, eta, taxi gidariaren laguntzarekin, oso denbora gutxian taxi barruan eta segurtasun uhal guztiak lotuta zeuden gurpil aulkia eta gainean zihoan pertsona bera.

Atzo aurkeztutako bi ibilgailuekin dagoeneko bederatzi taxi daude Bilbon mugitzeko arazoak dituztenentzat egokitutakoak. Gainera, Bilboko Udalak, ONCE Fundazioak eta Inersok hitzarmena egin dute, datozen hiru urteetan ezindu fisikoentzat moldatutako hemezortzi taxi erosteko, urtean sei taxi egokituko dituzte. Iñaki Azkunak atzo azaldu zuenez, taxi bakoitzari arrapalak eta bestelako segurtasun neurriak jartzeko 6.000 euroko inbertsioa egin beharko dute.

Iturria: *Berria*, 2005-11-9